

GETARIA / Literatur Lehiaketako sariak atzo Liburuaren Nazioarteko Egunean

Atzo udaletxeko pleno aretoan eginiko ekitaldian.

DV. Udalak antolatutako Getariako VIII. Literatur Lehiaketako sariak banatu ziren atzo, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Udaletxeko Pleno Aretoan buruturiko ekitaldian. Bertan, euren sariak jaso zituzten epaimahaiak asteartean aukeratutako lanen egileek, 13 guztira, adin eta kategoria ezberdinetan.

LH-1 mailakoen artean, Nahia Arostegi Arrillagaren Printzesa eta igela ipuina aukeratu zuen epaimahaiak, aurkeztutako lan guztien artetik. LH-2 mailan, berriz, Zuhaitz Ibarbiarentzat izan zen saria, Animalia basatiak ipuinarengatik.

LH-3 mailan bi saritu izan genituen, Marina Azagra Ama ez duen umea ipuinagatik eta Unai Lorenzo Olaskoaga, Getarian famatuak olerkiagatik. LH-4 mailan ere, bi sari: Libe Goenagaren Ilargiak koloreak lapurtu zituenean ipuina eta Nerea Martinez de la Hlidalga Azkueren Getaria olerkia. LH-5 mailan ipuinarentzat solik izan zen saria, epaimahaiak Julen Manterolaren Herri mutua idazlana aukeratu zuelarik aurkeztutakoen artetik. LH-6 mailan, berriz, bi sari, modalitate banatan: Xabier Irigoien Etxabek idatzitako Aitonaren amnesia ipuina eta Haizea Lertxundi Arrillagaren Erreka olerkia.

12 eta 14 urte arteko partehartzaileen artetik, Jon Urresti Martinezen Liburu misteriotsua ipuinak eskuratu zuen saria, eta 14-16 urte artekoetan, Aitor Urresti Martinezen Getaria olerkiak.

Azkenik, 16 urtetik gorakoetan, bi izan ziren saritutako lanak: XXI: Iraupena iruten, itxaropena itxaroten, Aitor Irigoien Odriozolaren olerkia, eta Bizitzaren trena ipuina, Josune Uzin Berasaluzena.

Gaur Ipuinaren Ordua

Bestalde, gaur arratsaldeko 18:00etan Ipuinaren ordua izango da liburutegian 4 urtetik aurrerako haurrentzat, Miriam Mendozarekin.